

# PERTSONA BAKOITZAREN INDARRA

KEINU BAKOITZAK DU  
ZERESANA



Tu compromiso  
mejora el mundo

# EL PODER DE CADA PERSONA

CADA GESTO CUENTA

Koronabirusak sortu duen mundu mailako pandemiak, duela hilabete gutxi uste ez genuen bezala gure bizitza modu imajinaezinean izatera behartu gaitu. Eguneroko ohiturek, harremanak izateko moduak eta gure emozioen kudeaketak, gainezka egin digute.

Gaixotasunak, maite ditugunen heriotzak eta isolamenduak, bide eman diete ekonomia eta lan-segurtasunik ezari, oinarrizko baliabiderik ezari, langalerari edo ABEEEEi. Gizarte hauskor eta zaurgarriagoa sortzen ari da, ziurtasunez baino ziurgabetasunez betetako ibilbide-orria duena.

Hauskortasun horretatik abiatuta ikusi ditugu, ordea, milaka keinu solidario, karitatez beteak, bihotzetik modu libre eta desinteresatuan jaiotzen den doako maitasun horretatik, trukean ezer itxaron gabe. Askotariko pentsamenduak dituzten pertsonak, sinesmen, lanbide, munduko herrialde guztietakoak, herri eta auzo guztietakoak, denak batera, mobilizatu eta arriskuan eta zaurituta dagoen gizateria baten zerbitzura jarri dira.

Bizi-esperientziak elkarrenganako sufrimenduaren eta minaren aurrean erreakzionarazi gaitu, eta gure nortasun eta kidesun-zentzua berreskuratzea bultzatu gaitu. Beste batzuetan ahaztu egiten zaiguna eta norberekeriara eta banakotasunera eramaten gaituena, gaur, batasunean kokatu gaitu, izaki bizidun gisa identifikatzen gaituen ondasun bateratua lehenestera: bizitzaren babesa eta defentsa.

Eliza, komunitate kristaua den aldetik, ahultasunari lagundu eta zaintzeko erronka dugu, eta baita azaleratzen ari den elkartasuna lantzeko ere, ez dadin geratu mehatxu partekatuaren aurrean bakarrik, munduan izateko eta egoteko modu berri batean baizik.

La pandemia mundial que ha generado el coronavirus nos ha obligado a disponer de nuestras vidas de una forma inimaginable hace tan sólo unos meses. Los hábitos cotidianos, la forma de relacionarnos y la gestión de nuestras emociones nos han desbordado.

La enfermedad, la muerte de nuestros seres queridos y el aislamiento, han dejado paso a la inseguridad económica y laboral, a la falta de recursos básicos, a la pérdida de empleo o a los ERTES. Emerge una sociedad mucho más frágil y vulnerable con una hoja de ruta más llena de incertidumbres que de certezas.

Sin embargo, es desde esta fragilidad desde donde hemos visto brotar miles de gestos solidarios llenos de caridad, de ese amor gratuito que nace del corazón de forma libre y desinteresada, sin esperar nada a cambio. Personas de pensamiento diverso, de todas las creencias, oficios, de todos los países del mundo, de todos los pueblos y barrios, todas a una, se han movilizado y puesto al servicio de una humanidad amenazada y herida.

La experiencia vital nos ha hecho reaccionar ante el sufrimiento y el dolor compartido y nos ha empujado a rescatar nuestro sentido de identidad y pertenencia. Aquello que otras veces se nos olvida y nos arrastra hacia el egoísmo y la individualidad, hoy nos ha posicionado en lo comunitario, en priorizar el bien común que nos identifica como seres vivos: la protección y defensa de la vida.

Como Iglesia, como comunidad cristiana, tenemos el reto de acompañar y cuidar la fragilidad y también cultivar la solidaridad emergente para que no se quede sólo en una reacción ante la amenaza compartida sino en una forma nueva de ser y de estar en el mundo.

**CARIDAD 2020 KARITATEA**

Pazko-denborak atek zabaldu dizkio Espirituari, aldatzeko gai den benetako motorra, bihotza eta gure bizimodua aldatzeko motorra. Beldurra, pertsona eta gizarte gisa hainbeste zauri irekirengatik sentitzen dugun mina, gure konfiantzaren itzal gisa egoten jarraitzen dute, eta behin eta berriz bultza gaitzake giltzapetuta eta beldurtuta egotera, Jesus gurutzean hil zenean ikasleei gertatu zitzaien bezala (Jn 20,19).

Baina ez gaude bakarrik. Jesukristo berpiztu egin da, eta ehunka zeinu eta keinutan espermentatu dugu Jainkoak gure dolua alaitasun eta txaloka eraldatu duela, lagun hartuta eta telefonoz hitz eginez, herritarren laguntza eman eta jasoz, ogiak eta arrainak ugaldtu, sendatu eta zainduz, eskuzabaltasun eta herritarrei zerbitzu emanaz.

Eta bide hau ez dugu bakarrik egin behar, askoz zailagoa baita. Berarekin eta beste pertsona batzuekin, hala nola Emausekin, oinez ibiltzera gonbidatzen gaitu, karga arinagoa izan dadin (cf. Lc 24 13-35): hartu eta entzuten den esperantza-komunitateak ehunduz, non otoitz egin eta ospatzen den, topaketa eta barkamena dauden elkarteak, non sendatu eta pertsona ahulenen ardura har dezakegun, parte hartzen duten elkarte profetikoak eta bidegabekeriak salatzen dituztenak.

Komunitate inklusiboak, harrera-guneak, non pertsona bakoitza bere etxean bezala senti daitekeen. Bizitza berreraikitzeko gai diren keinu errazak, egunerokoak, doakoak, maitasunez eta itxaropenez beteak egiten dituzten pertsonen osatutako komunitateak.

Frantzisko Aita Santuak askotan gogorarazten digu irteeran dagoen Eliza gisa proiektatu behar dugula. Nazareteko Jesusek, beste hitz batzuekin, zera esan digu: "ez da kriseilu bat eltze azpian sartzeko pizten, ganderailuan jartzeko baizik, eta etxeko guztiak argiztatu ditzan". Sinestunen komunitatea garenez, poz eta itxaropen keinuak egin behar ditugu, beste bizimodu bat posible dela adierazteko. Aurtengo Karitate Eguna ospatzeko, egin dezagun keinu bat, pertsonen eta munduaren bizitza hobetzeko dugun konpromisoaren adierazgarri. Keinu bakoitzak du zeresana.

El tiempo pascual ha abierto de par en par las puertas al Espíritu, el auténtico motor capaz de transformar-nos, de transformar el corazón y nuestro estilo de vida. El miedo, el dolor que como personas y como sociedad experimentamos por tantas heridas abiertas, siguen planeando como una sombra sobre nuestra confianza y puede empujarnos una y otra vez a permanecer encerrados y temerosos, como les pasó a los discípulos con la muerte de Jesús en la cruz (cf. Jn 20,19).

Pero no estamos solos. Jesucristo ha resucitado y hemos experimentado en cientos de signos y gestos que Dios sale a nuestro encuentro para transformar nuestro duelo en alegría y aplausos, en compañía y conversaciones telefónicas, en entrega y ayuda vecinal, en multiplicación de panes y peces, en sanación y cuidado, en generosidad y servicio a la ciudadanía.

Y este camino no tenemos que recorrerlo solos, que es mucho más difícil. Nos invita a caminar con Él y con otras personas, como los de Emaús para que la carga sea más ligera (cf. Lc 24 13-35): tejiendo comunidades de esperanza donde se acoge y se escucha, donde se ora y se celebra, comunidades en las que hay encuentro y perdón, donde podemos sanar y hacernos cargo de las personas más frágiles, comunidades proféticas que toman partido y denuncian las injusticias.

Comunidades inclusivas, espacios de acogida, donde cada persona se puede sentir como en su casa. Comunidades formadas por personas que realizan gestos sencillos, cotidianos, gratuitos, cargados de amor y de esperanza, capaces de reconstruir la vida.

El papa Francisco nos recuerda con frecuencia que estamos llamados a proyectarnos como Iglesia en salida. Jesús de Nazaret, con otras palabras, nos dice que "no se enciende un candil para meterlo debajo del perol, sino para ponerlo en el candelero y que alumbré a todos los de casa". Como comunidad de personas creyentes estamos llamadas a hacer gestos para anunciar la alegría y la esperanza de que otra forma de vivir es posible. Para celebrar el Día de Caridad de este año hagamos un gesto que sea testimonio de nuestro compromiso para mejorar la vida de las personas y del mundo. Cada gesto cuenta.

